



# Enpresa Komertzialaren Simulazioa

Ander Ibarloza Arrizabalaga

**Ikasle kaiera**

IKD baliabideak 3 (2012)

## AURKIBIDEA

1	Sarrera.....	1
1.1	Galdera eragilea.....	1
1.2	Jokalekua.....	1
1.3	Proiektuan parte hartzen duten ikasgaien zerrenda .....	1
1.4	Aurretiko ezagutzak: .....	4
1.5	ikasketaren helburuak: .....	5
1.6	Ian Zama: .....	6
2	Metodologia eta ebaluazio sistema .....	7
2.1	Jarduera motak (JM).....	7
2.2	Ebaluazio sistema (ES) .....	9
2.3	Baliabideak.....	9
	Ikasmaterialak .....	9
	Bibliografia.....	9
	Link erabilgarriak .....	10
3	Gehigarriak .....	11
3.1	E1 ereduak.....	11
	E1 eredu orokorra.....	11
	E1 galdu-irabazien orriaren eredu .....	18
	E1 biltegi eredu.....	19
3.2	E1-aren Errubrika.....	20

# 1 Sarrera

## 1.1 Galdera eragilea

Gerora saltzeko asmoz, bi ordenagailu erosi dira, bakoitza 1.000€ ordainduko da 90 egun barru. Aste bete pasatu ondoren, bat saldu da 2.000€ko salneurrian eta momentuan kobratu da.

Zein da eragiketa hauen emaitza, eurotan?

- a) 0.000€
- b) 1.000€
- c) 2.000€
- d) 3.000€
- e) Besterik

## 1.2 Jokalekua

Ikasketak burutu artean, langabezian zaudete eta diru premia duzuen lagun taldeak Kapital txikia behar duen enpresa txiki bat sortzea erabaki duzue gutxienez soldatatzeko bat izateko. Egokiena edo errazena horretan eskarmenturik izan ezean, enpresa komertzial bat sortzea da, hau da, ekoizpen beharrik ez duen enpresa bat, egindako produktuak, salgaiak erosi eta saltzen dituen, denda bat.

Merkatua aztertu eta bere jarduera zehaztu ondoren, zein produktu eta zein merkatu, txikizkaria (bezeroak, kaleko pertsona fisikoa dena, arropa denda, kirol denda, jaki denda, okindegia, informatika denda, eta abar izan daitezke) edota handizkaria (bezeroak, pertsona juridiko edo enpresak dituen, bere salgaiak, arropak, kirol produktuak, jakiak.... ) izango den adostu. Lortu beharreko bezeriaren ezaugarriak (umeak, gazteak, nagusiak, maila ekonomikoari begira: maila altukoak, ertainak, baxukoak). Geografikoki noraino hedatuko den: herria, probintzia, hiriburua....

Enpresa martxan jarri eta zuzendu beharko duzue. Urteko kontuak, balantzea, galdu-irabazien kontua, kontuen nagusiak, egitate kontableen idazpenak, biltegiko balioespenaren irizpide metodoa, bezero eta hornitzaileen kobratze eta ordainketak landu beharko dituzue, informazio guzti hori ondo aztertu eta erabakiak hartu enpresak merkatuan iraun dezan.

Urte beteko jarduerak zenbateko errentagarritasuna duen aurkeztu beharko duzue jarduerarekin jarraitu edo ez erabakitzeke eta ogasun publikoari zergak ordaintzeko ere.

## 1.3 Proiektuan parte hartzen duten ikasgaien zerrenda

IRAKASGAIAREN IKASGAIEN ZERRENDA:

1. JARDUERA EKONOMIKOA, ENPRESA ETA KONTABILITATEA
  - 1.1. JARDUERA EKONOMIKOA ETA ENPRESA

- 1.2. INFORMAZIO KONTABLEAREN ERABILTZAILAK
- 1.3. KONTABILITATEA INFORMAZIO SISTEMA MODUAN
- 1.4. KONTABILITATE MOTAK
2. URTEKO KONTUAK
  - 2.1. HELBURUA: IRUDI ZINTZOA
  - 2.2. KONTABILITATE PRINTZIPIOAK
  - 2.3. INFORMAZIOAREN BETEBEHARRA
  - 2.4. URTEKO KONTUETAKO ELEMENTUAK: AKTIBOAK, PASIBOAK, ONDARE GARBIA, SARRERAK ETA GASTUAK
  - 2.5. URTEKO KONTUAK PRESTATZEKO ARAUAK
  - 2.6. URTEKO KONTUEN EREDU NORMALAK
  - 2.7. URTEKO KONTU LABURTUEN EREDUAK
3. BALANTZEA
  - 3.1. ONDAREAREN KONTZEPTUA
  - 3.2. BALANTZEA
  - 3.3. ONADRE ALDAKETAK ETA ELKARREN SEGIDAKO EGOERA BALANTZEA
4. KONTABILITATE METODOA: KONTUAK ETA KONTUSAIL BIKOITZA
  - 4.1. KONTUA, KONTABILITATEKO EGITATEEN ORDEZKARITZA-TRESNA BEZALA
  - 4.2. KONTUSAIL BIKO METODOA
5. ZIKLO KONTABLEA
  - 5.1. ZIKLO KONTABLEA. IZAERA ETA ESANAHIA
  - 5.2. KONTABILITATEAREN HASIERA
  - 5.3. KONTABILITATEAREN GARAPENA
  - 5.4. KONTABILITATEAREN ITXIERA
6. NORMALIZAZIO KONTABLEA.
  - 6.1. NORMALIZAZIO KONTABLEA NAZIOARTEAN.
  - 6.2. NORMALIZAZIO KONTABLEAREN BALIABIDEAK
  - 6.3. KONTABILITATE PLAN OROKORRA
  - 6.4. NAHITAEZKO LIBURUAK
  - 6.5. ENPRESABURUEN BETEBEHAR KONTABLEAK
  - 6.6. EGUNKARI LIBURUA
  - 6.7. LIBURU NAGUSIA
  - 6.8. SALDO ETA BATUREN EGIAZTAPEN-BALANTZEA
  - 6.9. URTEKO KONTU ETA INBENTARIOAK

7. GIZA BALIABIDEAK
  - 7.1. PERTSONAL-GASTUAK
8. BALIO ERANTSIAREN GAINEKO ZERGA (BEZ) ETA MOZKINEN GAINEKO ZERGA
  - 8.1. BALIO ERANTSIAREN GAINEKO ZERGA (BEZ)
  - 8.2. MOZKINEN GAINEKO ZERGA.
9. ZERBITZU ENPRESETAKO EGITATEAK
  - 9.1. GASTUAK: KONTZEPTU, SAILKAPEN ETA BALORAZIOA
  - 9.2. SARRERAK: KONTZEPTU, SAILKAPEN ETA BALORAZIOA
10. MERKATARITZA ENPRESEN EGITATEAK
  - 10.1. IZAKINAK
  - 10.2. JABETZARI BURUZKO ZENBAIT KONTSIDERAZIO
  - 10.3. BILTEGIKO KONTUEN KONTABILIZAZIO-SISTEMA MOTAK
  - 10.4. BALIOESPEN ARAUAK
  - 10.5. IZAKINEN BALIO NARRIADURA
  - 10.6. BILTEGIKO KONTUEN KONTABILIZAZIO-SISTEMA MOTAK:  
ADMINISTRATIBOA ETA ESPEKULATIBOA
  - 10.7. IRTEERAK BALIOESTEKO ZENBAIT KONBENIO EDO IRIZPIDE
  - 10.8. ONTZIKI ETA BILGARRIEN KONTABILITATE-AZTERKETA
  - 10.9. IZAKINEN BALIOESPENERAKO ZENBAIT KONTZEPTUEN HAUSNARKETA
11. ENPRESA INDUSTRIALETAKO EGITATEAK
12. MERKATARITZA KREDITUA ETA KOBRANTZA KUDEAKETA
  - 12.1. KONTZEPTU ETA SAILKAPENA
  - 12.2. HORNITZAILE ETA HARTZEKODUNAK
  - 12.3. BEZERO ETA ZORDUNAK
  - 12.4. KOBRATZEKOAK DIREN MERKATARITZA-EFEKTUAK
  - 12.5. ORDAINTZEKOAK DIREN MERKATARITZA-EFEKTUAK
  - 12.6. KOBRANTZA DUDAGARRIKO KREDITUAK ETA ZUHURTASUN  
PRINTZIPIOA
  - 12.7. MERKATARITZA ERAGIKETENGATIKO HARTZEKODUN ETA ZORDUNAK
13. ALDIZKAPEN KONTABLEA
  - 13.1. SORTZAPEN PRINTZIPIOA ETA GASTU KORRONTEEN ALDIZKAPENA
  - 13.2. SORTZAPEN PRINTZIPIOA ETA SARRERA KORRONTEEN ALDIZKAPENA

Enpresa baten urtebete bateko kontabilitatearen kudeaketan, ikasgaiaren %80ak parte hartzen du. Dena den, ikasgaiaren irakasgai batzuk klase magistral eta ariketa

praktikoen bidez landuko dira eta besteak, jarraian izendatuak, proiektuaren bidez landu beharko dituzue, eginkizun horretarako beharrezkoak dituzuen ikasmaterialak eta bibliografia bideratuak eskuragarri utziko zaizkizue.

Bestelako jarduera batzuen bidez landu beharreko ikasgaiak %100ean:

- 5. gaia: Ziklo kontablea.
- 10. gaia: Merkataritza enpresen eragiketak.
- 12. gaia: Merkataritza kreditua eta kobrantza-kudeaketa.
- 13. gaia: Aldizkapen kontablea.

#### **1.4 Aurretiko ezagutzak:**

Ikasle batzuk kontabilitateari buruzko ikasgai batzuk ikasita etortzen dira eta lurreratze erosoagoa izaten dute. Dena dela, hasierako ikasgaien helburua, gerora egingo duten proiektuan behar izango dituzten tresnak aurkeztea izango da, kontabilitatekoak, enpresen sail ezberdinak, moodle, testu tratatzaileak, kalkulu orriak eta abar. Eginkizun honetan lehen bost asteak erabiliko ditut. Helburua taldeko guztiek, gai hauetan, oinarrizko ezagutzak izatea da, talde lanean traba handiegirik egon ez dadin.

Kontabilitateari buruz jakin beharreko minimoak hurrengo gaietan landuko dira:

- 1. gaia: Jarduera ekonomikoa, enpresa eta kontabilitatea.
- 2. gaia: Urteko kontuak.
- 3. gaia: Balantzea.
- 4. gaia: Eredu kontablea: kontuak eta kontu-sail bikoitza.
- 6. gaia: Normalizazio kontablea eta euskarri kontableak.

### 1.5 ikasketaren helburuak:

<i>Entregatzekoak</i>	<i>Ikasgaiak</i>	<i>Landutako gaitasunak</i>	<i>Ikasketaren helburuak</i>
<ul style="list-style-type: none"> <li>♦ <b>1. E1:</b> enpresa sortu, jarduera zehaztu eta lehen hiruhilekoa aurrekontu baten arabera planifikatu, enpresa martxan jartzeko beharrezkoak dituen baliabideak zehaztu eta hauen finantzazioa lortu. Lehen hiruhileko sarrera eta gastuen kontuak aurkeztu.</li> <li>♦ <b>2. E2:</b> El. entregatzekoari dagokion hiruhileko zergak kitatu, bigarren hiruhileko sarrera eta gastuen kontuak aurkeztu, kreditua landu eta seihilekoaren Enpresa Txiki eta Ertainen Urteko Kontuak UKETE-ak prestatu. Balantzea, Galdu irabazien kontua, egunkari liburua, nagusien liburua.</li> <li>♦ <b>3. E3:</b> E2. entregatzekoari dagokion hiruhileko zergak kitatu, uztaileko ezohiko paga eta abuztuan itxita egonda 3.hiruhileko kontuak aurkeztu beharrezkoak diren aldizkapenak egin eta hiru hiruhilekoen UKETE-ak prestatu.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>♦ <b>5. gaia:</b> Ziklo kontablea.</li> <li>♦ <b>10. gaia:</b> Merkataritza enpresen eragiketak.</li> <li>♦ <b>12. gaia:</b> Merkataritza kreditua eta kobrantza-kudeaketa.</li> <li>♦ <b>13. gaia:</b> Aldizkapen kontablea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>♦ <b>LG1,</b> Informazio kontablearen erregistro-tresneria garrantzitsuenak erabiltzen ikasi.</li> <li>♦ <b>LG2,</b> Finantza egoera-orriak lortzeko helburuarekin prozesu kontablea antolatu.</li> <li>♦ <b>LG5,</b> Enpresa jardueraren epe laburreko oinarrizko eragiketak baloratu eta kontabilizatu.</li> <li>♦ <b>ZG1,</b> Ikasketa gaitasunak garatu, auto-formaziorako eta bestelako ikasketetarako autonomi maila hobetuaz.</li> <li>♦ <b>ZG2,</b> Idatzizko eta ahozko komunikazioa garatu.</li> <li>♦ <b>ZG3,</b> Lantaldean lan egin, arduraz eta errespetuz.</li> <li>♦ <b>M01CM02,</b> enpresa edo erakundeak zuzentzea eta administratzea, bere konpetentzia eta instituzio gunea ulertuaz eta indar eta ahultasunak identifikatuaz.</li> <li>♦ <b>M01CM03,</b> edozein enpresa edo erakundeetako funtzio, sail edo antolaketan integratzen jakitea eta inguru ezberdin eta kultura anitzetako antolaketan lan egiteko trebetasunen jabe izanaz, jasotako kudeaketa ardurei erraz aurre egitea.</li> <li>♦ <b>M01CM04,</b> enpresa baten egoera eta bilakaera aurreikusia gaitasun kritikoarekin balioesteko, iturri ezberdinetako informazioa bilatzen, identifikatzen, aztertzen eta laburbiltzen jakitea, arrazoitutako iritziak ematea eta jatorri ekonomiko, sozial eta etikoak duten erabakiak hartzea.</li> <li>♦ <b>M01CM05,</b> erabilgarri dauden baliabideak eraginkortasunez esleitzea, informazio eta komunikaziorako teknologiak, bere ikasketa esparruan zein testuinguru profesionalean, erabiliaz.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>♦ <b>IH1</b> Hartu beharreko erabakiak txostenetan edo informazio kontablean arrazoituak planteatuko dituzte.</li> <li>♦ <b>IH2</b> Enpresa ezberdinen egitura ekonomiko finantzarioak konparatuko dituzte.</li> <li>♦ <b>IH3</b> Informazio ekonomiko eta eredu kontablearen analisisa egingo dute.</li> <li>♦ <b>IH4</b> Kontabilitate Plan Orokorra eta ekitaldi batean sortutako fondoan fluxu eta enpresaren emaitzen eta egoerari buruzko teknika kontablea landuko dute.</li> <li>♦ <b>IH5</b> Urteko kontuak prestatu eta aurkeztuko dituzte.</li> <li>♦ <b>IH6</b> Talde lanerako funtzioen banaketa eta hauen koordinazioa landu behar izango dute.</li> <li>♦ <b>IH7</b> Enpresa txiki eta ertainen egituraz jabetuko dira.</li> <li>♦ <b>IH8</b> Enpresaren politika zehaztuko dute.</li> </ul>

**1.6 lan Zama:**

Ebaluazioaren arabera izango da. Hau da, proiektuak ebaluazioaren %25a izango duenez lan zama ondoko hau izango da:

Ikasle bakoitzeko:

- a. Ikasgelako orduak 15
- b. ikasgelatik kanpoko orduak 22.

Talde bakoitzeko:

- c. Ikasgelako orduak  $15 \times 4 = 60$
- d. ikasgelatik kanpoko orduak  $22 \times 4 = 88$

Proiektua, 6. Astean gauzatzen hasiko bada ere, lehen 5 asteetan ikasleei proiektuaren nondik norakoak azaldu eta irakasgaiaren bateratze lana izango da nagusi, proiektuarekin hasten direnerako, oinarrizko ezagutza bateratuak izan ditzaten eta proiektua ezberdinen ideiak planteatzen has daitezten.

6. astean hasi eta bost astetan burutuko dute, tartean klase magistralak ere tartetxo bat izango dute, honekin proiektua burutzeko malgutasun handiagoa dute, gehiegi kontzentratzea ere kaltegarri izan daiteke eta.



## 2 Metodologia eta ebaluazio sistema

### 2.1 Jarduera motak (JM)

- JM1. **Azterketatxo edo kontrolak.**
- JM2. Ikasketaren helburuez **hausnartu.**
- JM3. Taldekako jokalekuaren azterketa eta proiektua aurrera eramateko edo garatzeko **funtzioen banaketa**. Jokalekuaren informazioaren banaketa eta mugak ezarrita daudenez, talde bakoitzak berea egingo du eta landu ondoren akta bat egingo dute Moodle-ko foroaren bidez.
- JM4. **Idea zaparrada** (*brainstorming*).
- JM5. **Eztabaida bideratua**, mahaigainertutako galderei taldeka erantzuna eman beharra.
- JM6. **Informazioaren bilaketa.**
- JM7. Taldeen antolaketa eta **funtzionamendu onerako jarduerak** (eraketa, funtzionamendu arauak, bileretako aktak, gertakari larriak, gatazka kudeaketak, funtzionamenduaren hausnarketa, taldeen ebaluazioa eta partaideen koebaluazioa).
- JM8. **Maila berekoen ebaluazioa**. Taldeek beste taldeen 1 eta 3 entregatzekoak aztertuko dituzte.
- JM9. **Puzzleak**. Magistralean landuko ez diren ikasgaien lanketa. Enpresaren arlo ezberdinen jardueren informazioaren bateratzea.
- JM10. Balorazio **inkestak**.

Faseak	Entregatzekoa	Jarduerak	Ebaluazioa
<b>Bateratu:</b> 5 aste		JM1 40``	
<b>1 Proiektua martxan.</b> 6.astea	Lehen	JM2, 25``, 20``	
		JM3, 30``	
	Artea	JM4, 30``	
	<b>E1</b>	JM5, 45``	ES21: 0,5
	Azken	JM6, 50``	
7. astea	Lehen	JM8, 45``, 30``	
	<b>E2</b> Artea	JM5, 30``	ES22: 0,5
		JM9, 45``	
	Azken	JM6, 50``	
<b>2 Hausnarketa.</b> 8. astea	Lehen	JM7, 35``	
		JM9, 40``	
	Artea	JM9, 50``	
		JM5, 25``	
	Azken	JM10, 20``	
		JM1, 30``	
<b>Atsedena</b> 9. astea		JM9 40``	
<b>3. Proiektua garatu eta bukatu</b> 10. astea	Lehen	45``	
		JM3, 30``	
	Artea	JM9, 55``	
	<b>E3</b>	JM5, 20``	ES23: 0,5
	Azken	JM6, 50``	
11. astea	Artea	45``	
12. astea	Artea	JM9, 30``	
	Azken	JM10, 20``	

## 2.2 Ebaluazio sistema (ES)

Guztirako 10 puntuen banaketa, hurrengoak izango da:

Oinarrizko ezagutzak:	1
Proiektuaren garapenak:	2,5
Azken azterketan:	6,5

ES1. Oinarrizko ezagutzen azterketa bakoitzak, bi izango dira: proiektuaren hasieran (ES11) 0,5 balio du; proiektuaren erdian, 2. entregatzekoaren ostean eta gizabanakoen galdagarritasuna bultzatzeko, talde bakoitzeko partaideen artean ateratako batz besteko nota berdina jarriko zaio talde guztiari, (ES12) 0,5 puntu balio du; guztira 1.

ES2. Proiektuaren garapenak bukaerako notaren 2,5 balio du:

- **E1.** entregatzekoak 0,25 puntu balio ditu. Maila berekoen ebaluazioa egiten duen taldearen esku. Mugetan daudenak eta ausazko batzuk berrikusi.
- **E1.** entregatzekoaren maila berekoen ebaluaziok 0,25. Aholkuak jaso dituzten taldeen esku.
- **E2.** entregatzekoak 0,5 puntu.
- **Galdetegiak** 0,5 puntu balio du. Taldekide bakoitza landu beharreko gai bati lotu eta espezialisten taldeak egingo dira, gaia landu eta sakontzeaz gain, test motako 12 galdera entregatuko dituzte. Galdera egokien arabera ebaluatuko da.
- **E3.** entregatzekoak puntu 1 balio du.

ES3. Azken azterketak 6,5 puntu balio ditu eta gutxienez 2,5 puntu lortu behar dira.

⊕ Lehen entregatzekoak errubriken bidezko balioespena izango du.

## 2.3 Baliabideak

### Ikasmaterialak

### Bibliografia

- ☞ *Kontabilitate Plan Orokorra - Enpresa Txiki eta Ertainen Kontabilitate Plan Orokorra*, Ekonomista -Ekonomisten Euskal Elkargoa-Colegio Vasco de Economistas, Bilbo, 2008.

- ⊞ *Plan General de Contabilidad – Plan General de Contabilidad de Pequeñas y Medianas Empresas*, Economista-Ekonomisten Euskal Elkargoa-Colegio Vasco de Economistas, Bilbo, 2008.
- ⊞ ALDAZABAL, M. E.; IPIÑAZAR, I.; SAITUA, A. (Koord.), *Kontabilitate Plan Orokorra - Enpresa Txiki eta Ertainen Kontabilitate Plan Orokorra*, EHU-Ekonomisten Euskal Elkargoa, Bilbo, 2010.
- ⊞ AZKUE, I.; CERESO, A.; ERKIZIA, A.; IBARLOZA, E., *Kontabilitatea: teoria eta praktika. 2007ko kontabilitate-planera egokitua*, Elhuyar, Usurbil, 2009.
- ⊞ CAMARA, D.; SANTIBÁÑEZ, J., *Gestión práctica de PYMES. Cómo mejorar los resultados de la empresa*, Ibergarceta, Madrid, 2010.
- ⊞ ERKIZIA, A.; CERESO, A.; IBARLOZA, E., *Kontabilitatearen oinarriak. Kontuak kontagai*, Elhuyar, Usurbil, 2004.
- ⊞ GOXENS ORENSANZ, M.A.; RODRÍGUEZ GARCÍA, F.; OSÉS GARCÍA, J.; LOSILLA RAMÍREZ, M.F., *Introducción a la Contabilidad financiera*, Ibergarceta, Madrid, 2010.
- ⊞ IBARLOZA ARRIZABALAGA, E., *Introducción a la Contabilidad*, EHU, Donostia, 2010.
- ⊞ QUESADA SÁNCHEZ, F.J.; MALLO, RODRÍGUEZ, C.; JIMÉNEZ MONTAÑÉS, K.A, *Contabilidad Financiera para PYMES. Un enfoque práctico*, Ibergarceta, Madrid, 2010.

### Link erabilgarriak

- ⊞ AECA (Asociación Española de Contabilidad y Administración de Empresas): [www.aeca.es](http://www.aeca.es)
- ⊞ FASB / US GAAP (*Financial Accounting Standards Board*): [www.fasb.org](http://www.fasb.org)
- ⊞ IASB (*International Accounting Standards Board*): [www.iasb.org.uk](http://www.iasb.org.uk)
- ⊞ ICAC (Instituto de Contabilidad y Auditoría de Cuentas): [www.icac.meh.es](http://www.icac.meh.es)
- ⊞ SEC (*Securities and Exchange Commission*): [www.sec.gov](http://www.sec.gov)

## 3 Gehigarriak

### 3.1 E1 ereduak

Sortu enpresa komertzial bat eta urtarrilaren 01ean jarduera hasi.

**a) Baldintzak:**

- ⊕ Jarritako kapitala gehienez 5.000€tako izango da, bazkideko. Behar bezala arrazoitutako kasuetan 10.000€-rainokoa izango da.
- ⊕ Bazkide guztiak, enpresako langileak izango dira.
- ⊕ Langile bakoitzaren ardurak zehaztuak izango dira. Gutxienez:
  1. Erosketa arduraduna.
  2. Salmenta arduraduna.
  3. Biltegiko arduraduna.
  4. Administraria.
  5. Koordinatzailea.
- ⊕ Kobratzea eta ordainketa gehienak kreditura izango dira, ez dira momentuan egingo epe baten barruan baizik.
- ⊕ Jarduera ekonomikoa salgaien salerosketara mugatuko da.

### E1 eredu orokorra

#### A. ENPRESAREN EZAUGARRIAK:

1. IZENA :

• \_\_\_\_\_

2. ELKARTEAREN EGITURA JURIDIKOA: \_\_\_\_\_

3. HELBIDEA :

• \_\_\_\_\_

4. KAPITALAREN ZENBATEKOA, SORTZE DATA ETA ESTATUTUAK:

• \_\_\_\_\_  
\_\_\_\_\_

5. ENPRESA OSATZEN DUTEN BAZKIDEAK ETA BAKOITZAK JARRITAKO KAPITALA

a) \_\_\_\_\_

b) \_\_\_\_\_

c) \_\_\_\_\_

6. Jarduera Ekonomikoaren Deskribapena:

a) Produktuak: Ezaugarriak, prezioak, marjina komertziala, \_\_\_\_\_  
\_\_\_\_\_  
\_\_\_\_\_  
\_\_\_\_\_

b) Merkatua: Ezaugarriak, garapena, politika komertzialaren deskribapena, marjina, Konpetentziarekiko ezberdintasuna, \_\_\_\_\_  
\_\_\_\_\_  
\_\_\_\_\_  
\_\_\_\_\_

c) Hornitzaileak: Ezaugarriak, ordaintzeko erak, entregatzeko datak, deskontu motak, \_\_\_\_\_  
\_\_\_\_\_  
\_\_\_\_\_  
\_\_\_\_\_

d) Bezeroak: Ezaugarriak, kobratzeko erak, entregarako data eta erak, marjina, epe ertainerako estrategia komertziala, \_\_\_\_\_  
\_\_\_\_\_  
\_\_\_\_\_  
\_\_\_\_\_

e) Langileak eta antolaketa: Sail bakoitzeko betebeharrak eta arduradunak, ezaugarriak, funtzioak, soldatak, (Bazkideez gain gutxienez beste langile simulatu bat kontratatu behar da), \_\_\_\_\_  
\_\_\_\_\_  
\_\_\_\_\_  
\_\_\_\_\_  
\_\_\_\_\_  
\_\_\_\_\_

f) \_\_\_\_\_  
\_\_\_\_\_  
\_\_\_\_\_  
\_\_\_\_\_

g) \_\_\_\_\_  
\_\_\_\_\_  
\_\_\_\_\_  
\_\_\_\_\_

**B. ENPRESAREN DESKRIBAPEN EKONOMIKO FINANTZARIOA:**

Enpresa zabaldu denerako, bere jardueran hasteko, urtarrilaren 01erako denak prest egon behar duenez, beharrezkoa den guztia muntatua du, beraz, kokatu eta egin data horri dagokion balantzea.

**BALANTZEA**, urtarrilaren 01ean

**EGITURA EKONOMIKOA:** (enpresak daukanaren zerrenda), **AKTIBOA**

A. Aktibo ez Korrontea: (Enpresan urte bat baino gehiago iraungo duen eta daukan guztiaren zerrenda, iraungo duen denboraren arabera sailkatuta)

- a) Eraikina 1 ..... €
- b) Mahaiak 2 ..... 200 €
- c) Telefonoa 3 ..... 100 €
- d) Ordenagailuak 3 ..... 3.000 €
- e) Aplikazio informatikoa (kontabilitateko programa) ..... 1.500 €
- f) Aulkiak 12 ..... €
- g) ..... €
- h) ..... €
- i) ..... €
- j) ..... €
- k) ..... €
- l) ..... €
- m) ..... 1.000 €

AKTIBO EZ KORRONTEA GUZTIRA .....

B. Aktibo Korrontea: (Enpresan urte bat baino gutxiago irauten duten eta daukan guztiaren zerrenda, iraungo duen denboraren arabera sailkatuta)

- a) Salgaiak a ..... €
- b) Salgaiak b ..... €
- c) ..... €
- d) ..... €
- e) ..... €
- f) ..... €
- g) Dirua ..... 1.000 €

AKTIBO KORRONTEA GUZTIRA .....

**AKTIBOA GUZTIRA** .....

**FINANTZA EGITURA:** (Daukana ordaintzeko zein finantza iturri erabili den)

A. Ondare Garbia: (Bazkideek ipinitako kapitala edo 3.go inori zor ez zaion finantza iturria)

- a) A bazkidea ..... 5.000 €
- b) B bazkidea ..... €
- c) C bazkidea ..... €
- d) ..... €
- e) ..... €

ONDARE GARBIA GUZTIRA .....

C. Pasibo ez Korrontea: (Epe Luzeko Zorrak)

- a) ..... €
- b) ..... €
- c) ..... €
- d) ..... €

PASIBO EZ KORRONTEA GUZTIRA .....

B. Pasibo Korrontea: (Epe laburreko zorrak)

- a) Hornitzaileak ..... €
- b) ..... €
- c) ..... €
- d) ..... €
- e) ..... €

PASIBO KORRONTEA GUZTIRA .....

**ONDARE GARBIA eta PASIBOA GUZTIRA .....**



### **C. URTARRILERAKO PLANIFIKAZIO ETA AURREKONTUA**

URTARRILERAKO HELBURUAK:

- \_\_\_\_\_
- \_\_\_\_\_
- \_\_\_\_\_
- \_\_\_\_\_

HELBURUAK LORTZEKO ESTRATEGIAK:

- \_\_\_\_\_
- \_\_\_\_\_
- \_\_\_\_\_
- \_\_\_\_\_

ESTRATEGIA EDO PLANEN ARDURADUNAK:

- \_\_\_\_\_
- \_\_\_\_\_
- \_\_\_\_\_
- \_\_\_\_\_

**D. URTARRILEKO GALDU-IRABAZIEN KONTUAK:** Urtarrileko jarduera ekonomikoa burutu ondoren zein izan da ekitaldi horretako emaitza, urtarrilaren 31n:

1. Salmentak: .....	_____	€
a. Produktua .....	_____	€
b. Produktua .....	_____	€
c. Produktua .....	_____	€
2. Hornikuntzak.....	_____	€
a. Erosketak .....	_____	€
b. Salgaien aldaketak (+/-) .....	_____	€
3. Pertsonal gastuak .....	_____	€
a. Soldatak .....	_____	€
b. Karga sozialak .....	_____	€
4. Bestelako gastuak.....	_____	€
a. Kanpoko zerbitzuak .....	_____	€
0. Ekitaldiko ikerketa- eta garapen-gastuak .....	_____	€
1. Errentamenduak eta kanonak .....	_____	€
2. Konponketak eta kontserbazioa .....	_____	€
3. Profesional independenteen zerbitzuak .....	_____	€
4. Garraioak .....	_____	€
5. Aseguru-primak .....	_____	€
6. Banku-zerbitzuak eta antzekoak .....	_____	€
7. Publizitatea, propaganda eta harreman publikoak .....	_____	€
8. Hornitzeak .....	_____	€
9. Bestelako zerbitzuak .....	_____	€
<b>A. USTIAPENENKO EMAITZA.....</b>	<b>_____</b>	<b>€</b>
5. Finantza sarrerak. ....	_____	€
6. Finantza gastuak. ....	_____	€
<b>B. FINANTZA EMAITZA .....</b>	<b>_____</b>	<b>€</b>
<b>C. ZERGA AURREKO EMAITZA (A+B) .....</b>	<b>_____</b>	<b>€</b>

LORTUTAKOIA:

a) SALMENTETAN:

---

---

---

---

---

b) GASTUETAN:

---

---

---

---

---

c) EMAITZA:

---

---

---

---

d) MERKATUAN:

---

---

---

---

e)

---

---

---

---

**E. OTSAILERAKO PLANIFIKAZIO ETA AURREKONTUA**

**F. MARTXORAKO PLANIFIKAZIO ETA AURREKONTUA**

**E1 galdu-irabazien orriaren ereduia**

KONTU ZK.	GALDU-IRABAZIEN KONTUA	MEMORIA OHARRAK	2010 AKUMULATUA	10/03/31	10/02/28	10/01/31
700,701,702,703,704, 705,(706),(708),(709)	<b>1. Negozio-zifraren zenbateko garbia.</b>		0			
),(602),606,(607),608,609,(6931),(6932),(6933),7931	<b>4. Hornikuntzak.</b>		0	0	0	0
(600)	0. Erosketak		0			
61*	1. Salgaien aldaketa (+/-)		0			
(64)	<b>6. Pertsonal gastuak.</b>		0	0	0	0
(640)	0. Soldatak		0			
(62),(631),(634),636,639,(65),(694),(695),794, 7954	<b>7. Ustiapeneko bestelako gastuak</b>		0	0	0	0
(620)	0. Ekitaldiko ikerketa- eta garapen-gastuak		0			
(621)	1. Errentamenduak eta kanonak		0			
(622)	2. Konponketak eta kontserbazioa		0			
(623)	3. Profesional independenteen zerbitzuak		0			
(624)	4. Garraioak		0			
(625)	5. Aseguru-primak		0			
(626)	6. Banku-zerbitzuak eta antzekoak		0			
(627)	7. Publizitatea, propaganda eta harreman publikoak		0			
(628)	8. Hornitzeak		0			
(629)	9. Bestelako zerbitzuak		0			
(68)	<b>8. Ibilgetuaren amortizazioa.</b>		0			
	<b>A) USTIAPENEO EMAITZA (1+2+3+4+5+6+7+8+9+10+11)</b>		0	0	0	0
760,761,762,769	<b>12. Finantza sarrerak.</b>		0			
(660),(661),(662),(664),(665),(669)	<b>13. Finantza gastuak.</b>		0			
	<b>B) FINANTZA EMAITZA (12+13+14+15+16 )</b>		0	0	0	0
	<b>C) ZERGA AURREKO EMAITZA (A+B)</b>		0	0	0	0
(6300)*,6301*(,633),638	<b>17.Mozkinen gaineko zergak.</b>		0			
	<b>D) EKITALDIKO EMAITZA (C + 17)</b>		0	0	0	0
* Zeinu positiboa edo negatiboa izan dezake						

## E1 biltegi eredua

Produktuak	URTARRILA HASIERAN			URTARRILA BUKAERAN			URTARRILEKO SALGAIEN ALDAKETA		
	aleak	prezioa	Zenbatekoa	aleak	prezioa	zenbatekoa	aleak	prezioa	zenbatekoa
1,00			0,00			0,00	0,00		0,00
2,00			0,00			0,00	0,00		0,00
3,00			0,00			0,00	0,00		0,00
4,00			0,00			0,00	0,00		0,00
5,00			0,00			0,00	0,00		0,00
6,00			0,00			0,00	0,00		0,00
7,00			0,00			0,00	0,00		0,00
8,00			0,00			0,00	0,00		0,00
9,00			0,00			0,00	0,00		0,00
10,00			0,00			0,00	0,00		0,00
11,00			0,00			0,00	0,00		0,00
12,00			0,00			0,00	0,00		0,00
13,00			0,00			0,00	0,00		0,00
<b>Guztira URTARRILA</b>			<b>0,00</b>			<b>0,00</b>			<b>0,00</b>
Produktuak	OTSAILA HASIERAN			OTSAILA BUKAERAN			OTSAILAILEKO SALGAIEN ALDAKETA		
	aleak	prezioa	Zenbatekoa	aleak	prezioa	zenbatekoa	aleak	prezioa	zenbatekoa
1,00	0,00	0,00	0,00			0,00	0,00		0,00
2,00	0,00	0,00	0,00			0,00	0,00		0,00
3,00	0,00	0,00	0,00			0,00	0,00		0,00
4,00	0,00	0,00	0,00			0,00	0,00		0,00
5,00	0,00	0,00	0,00			0,00	0,00		0,00
6,00	0,00	0,00	0,00			0,00	0,00		0,00
7,00	0,00	0,00	0,00			0,00	0,00		0,00
8,00	0,00	0,00	0,00			0,00	0,00		0,00
9,00	0,00	0,00	0,00			0,00	0,00		0,00
10,00	0,00	0,00	0,00			0,00	0,00		0,00
11,00	0,00	0,00	0,00			0,00	0,00		0,00
12,00	0,00	0,00	0,00			0,00	0,00		0,00
13,00	0,00	0,00	0,00			0,00	0,00		0,00
<b>Guztira OTSAILA</b>			<b>0,00</b>			<b>0,00</b>			<b>0,00</b>
Produktuak	MARTXOA HASIERAN			MARTXOA BUKAERAN			MARTXOKO SALGAIEN ALDAKETA		
	aleak	prezioa	Zenbatekoa	aleak	prezioa	zenbatekoa	aleak	prezioa	zenbatekoa
1,00	0,00	0,00	0,00			0,00	0,00		0,00
2,00	0,00	0,00	0,00			0,00	0,00		0,00
3,00	0,00	0,00	0,00			0,00	0,00		0,00
4,00	0,00	0,00	0,00			0,00	0,00		0,00
5,00	0,00	0,00	0,00			0,00	0,00		0,00
6,00	0,00	0,00	0,00			0,00	0,00		0,00
7,00	0,00	0,00	0,00			0,00	0,00		0,00
8,00	0,00	0,00	0,00			0,00	0,00		0,00
9,00	0,00	0,00	0,00			0,00	0,00		0,00
10,00	0,00	0,00	0,00			0,00	0,00		0,00
11,00	0,00	0,00	0,00			0,00	0,00		0,00
12,00	0,00	0,00	0,00			0,00	0,00		0,00
13,00	0,00	0,00	0,00			0,00	0,00		0,00
<b>Guztira MARTXOA</b>			<b>0,00</b>			<b>0,00</b>			<b>0,00</b>

### 3.2 E1-aren Errubrika

Irizpidea	4	3	2	1
1. Enpresaren jardueraren ideia. (3 puntu)				
1.1. Jarduera ondo azaldua dago.	Jarduera ondo azaldua eta kokatua dago. Ondo eta txukun aurkeztua egoteaz gain, kontuan hartu dira, bezeroak, produktuak, hornitzaileak, erosketa eta salmenta prezioak, egutegiak, ordutegiak, langileria, plan estrategikoak, plan operatiboak, kostuak, edapen geografikoa, azpiegiturak, finantza iturriak...	Orokorrean ondo eta txukun azaldua eta aurkeztua dago. Jarduera edota ildo nagusiak ondo ebaluatu ahal izateko, bideragarria denaren iritzia emateko zailtasunak daude zehaztasun batzuk falta dira eta.	Jarduera zein den txukun azaldua dago baina ezin da ondo irudikatu jardueraren dimentsioa.	Ez da ondo ulertzen jardueraren funtsa.  <b>AHOLKUAK:</b>
1.2. Originala edo berriztagarria da eta aldi berean errealitatean	Oso berezia eta interesgarria da. Bideragarritasuna ezin da baloratu, ez baita ezagutzen baina jarritako argumentuak	Jarduera ezaguna izan arren, berezitasunez beterik dago eta errealitatean	Berriztatzailea da baina bideragarritasunaren argumentuak ez dute	Irakurtzen hasi orduko ezaguna duzun eta berezitasunik ez

funtzionatu dezake	ondo arrazoituak dira eta errealitatearekin bat egiten du. Eszenatoki ezberdinak irudikatu dira.	funtzionatzeko aukera handiak ditu.	errealitatearekin bat egiten.	duen jarduera batekin lotu duzu.  <b>AHOLKUAK:</b>
1.3. Ibilgetu inbertsioa nahikoa da	Jarduerari aurre egiteko, beharrezkoa den tresneria guztia du eta ondo zehaztua dago, biltegiak, aseguruak, garraio elementuak, bulegoak, komunikazio tresnak, informaziorako ekipamendu eta aplikazioak, patenteak, instalazio teknikoak, altzariak eta gainera ondo baloratua. Prezioen erreferentziak ipinita daude.	Ibilgetuaren zerrenda bat badago eta jarduera hobeto ulertzeko balio duen arren, ez dago behar bezala zehaztuta zertarako den, non kokatzen den eta zergatik ezta prezio guztiak nondik atera diren ere.	Gutxi gora-beherako zerrenda bat badago baina nahikoa zehaztu gabe. Ez du jardueraren beharrak definitzeko balio.	Zerrenda orokor bat prezio batzuekin ageri da.  <b>AHOLKUAK:</b>
1.4. Planifikazioa, aldagaiak kontuan hartuta, logikoa da	Merkatua, konpetentzia, bezeria, produktua, salneurriak, langileak, enpresa berria eta abar kontuan hartuta planifikazioa ondo arrazoitua egin da eta ondo egokitu da	Orokorrean ondo baina garrantzitsuak diren aldagai batzuk ez dira aipatzen. Eszenatokia dudagarria da.	Planifikazioa egina dago eta itxura ona du baina aldagai eta arrazoiak ez dira azaltzen.	Planifikazioak ez du logikarik edo okerra da.  <b>AHOLKUAK:</b>

	eszenatokian.			
1.5. Erabaki estrategiko eta operatiboak koherenteak dira	Lehen hiruhilekoan zehar hartutako erabakiak koherentzia du epe luzeko inbertsioarekin, planifikazioarekin, jarduerarekin, epe laburreko merkaturan sartzeko ekintza operatiboekin.	Arrazoituak izan arren, oinarririk gabe daude aipatutako erabaki horiek.	Ez da bereizten epe luze eta laburreko estrategiarik eta koherentzia falta da erabaki zehatz batzuetan.	Ez da erabaki berezirik hartu.  <b>AHOLKUAK:</b>
1.6. Besterik	Aipagarria iruditu zaizuna	Aipagarria iruditu zaizuna	Aipagarria iruditu zaizuna	Aipagarria iruditu zaizuna
2. Talde lana (2 puntu)				
2.1. Funtzioak ondo berezitura daude bai taldean baita enpresako rolak ere.	Taldeko partaide bakoitzak egin beharreko lanak ondo berezitura, zein lan egin, nola egin, noiz egin, norekin eta noiz koordinatu. Akten arduraduna, koordinatzailea, dinamizatzailea, entregatzeko arduraduna, ikasketen kontrollerra...	Taldeko partaide bakoitzak egin beharreko lanak berezitura, baina hobetu daiteke edo txukunago edo argiago ipini. Koordinatzeko irizpideak falta dira. Enpresako rolak ere zehaztuta dauden arren,	Lan banaketa orokorra egin da baina zehaztasunak falta dira. Rolak ez daude ondo finkatuta.	Ez da lan banaketa eta koordinaketa bat ikusten, ezta lanik egin dutenik ere.  <b>AHOLKUAK:</b>



	rolak: Kudeatzailea, salmenta arduraduna, erosketa arduraduna, biltegiko arduraduna, pertsonal arduraduna, administraria.	hobetu daitezke, langile edo sail bakoitzaren lanak edo betebeharrak hobeto finkatu.		
2.2. Aktetan ondo adierazita daude jarraipenak.	Egin beharreko eta egindako guztiak aktatan jasoak daude eta <i>checklist</i> guztiak emaitza onak eman dituzte.	Lehenengotan ondo baina okertzen joan da, tira bira suma daitezke.	Ez da jarraipen onik egiten eta <i>checklist</i> -en emaitzak kaxkarrak dira.	Aktak faltan eta ez dute jaso beharrekoa jasotzen. <b>AHOLKUAK:</b>
2.3. Besterik	Aipagarria iruditu zaizuna	Aipagarria iruditu zaizuna	Aipagarria iruditu zaizuna	Aipagarria iruditu zaizuna
3. Balantzea: (2p)				
3.1. Aktibo ez korrontea	Ibilgetuan zehaztutako kontuen baturak kopuruekin bat egiten du, amortizazio edo balio-galera sistematikoa, oroitza oharrak eta beharrezko informazioa txukun azaltzen da.	Ondo dago baina zenbakiak ez datoz bat edo hobetu daiteke.	Akats nabarmenak daude eta ez du enpresaren ibilgetua behar bezala islatzen.	Informazioa ez da ez egokia ezta zuzena ere. <b>AHOLKUAK:</b>
3.2. Aktibo korrontea	Hiruhilabeteko jardueraren ondorioz, kreditura egindakoak,	Ondo dago baina zenbakiak ez datoz bat	Akats nabarmenak daude eta ez du	Informazioa ez da ez egokia ezta

	bezeroak, biltegiko izakinak eta likidoak berrikusi. Kobratze eta ordainketa politikarekin bat egiten dute.	edo hobetu daiteke.	enpresaren likidezia politika behar bezala islatzen.	zuzena ere. <b>AHOLKUAK:</b>
3.3. Ondare Garbia	Kapitalaren zenbatekoa, bazkideen ekarpena eta ekitaldiko emaitzaren kontua zuzen eta txukun agertzen da, galdu irabazien kontuko emaitza metatuarekin bat egiten du.	Kapitalaren zenbatekoa eta ekitaldiko emaitzaren kontua zuzen agertzen da GI kontuko emaitza metatuarekin bat egiten du.	Ekitaldiko emaitzaren kontua zuzen agertzen da GI kontuko emaitza metatuarekin bat egiten du.	Ekitaldiko emaitzaren kontua ez da zuzen agertzen. <b>AHOLKUAK:</b>
3.4. Pasiboa	Jarduerari aurre egiteko jasan behar izan dituen zor guztiak ondo adierazita daude epeetan, korrante eta ez korrontean eta oroitza oharretan ere.	Zor guztiak ondo adierazita daude epeetan, korrante eta ez korrontean eta oroitza oharretan hobeto zehaztu daitezke, epeak, interesak, bermeak,... .	Zorraren sailkapena ez dago behar bezain ondo egina eta garrantzitsua den informazioa falta da.	Ez dago ondo adierazita. <b>AHOLKUAK:</b>
3.5. Koadratua	Ondo koadratuta badago	Koadratuta badago, doikuntza bereziak eginaz eta aipatuaz.	Koadratu gabe.	Koadratu gabe doikuntza bereziak egin arren.
4. Galdu irabazien				

kontua: (2p)				
4.1. Salmentak	Planifikatutakoarekin bat egiten du eta izan dituen aldaketak arrazoituak daude. Eta hartutako marketin erabakien isla nabarmen ikus daiteke.	Aldaketak planifikazioaren baitan daude, ez da erabaki komertzialen islarik agertzen. Nahiz eta enpresa berrietan hasierak oso aldakorrak izan.	Berdin mantendu da, edo ez du aldaketa nabarmenik izan nahiz eta arrazoitua izan.	Berdin mantendu da hiruhileko guztian zehar.  <b>AHOLKUAK:</b>
4.2. Hornikuntzak	Margenak ondo aplikatu dira eta emaitzak ala diote, salgaien erosketa eta biltegian koordinazioa egokia izan da, salmenta punta gogorak izan direnean ez da hornikuntza arazorik izan, ondo azaldutako logistika aplikatzen baita.	Margenak ondo aplikatu dira eta emaitzak ala diote, salgaien erosketa eta biltegian koordinazioa egokia izan dela ematen du.	Margenak nahiko txukun dauden arren, ez dago loturarik erabilitako politika eta kontuen artean.	Ez dago batere ondo.  <b>AHOLKUAK:</b>
4.3. Pertsonala eta gastu orokorrak	Gastu ezberdin guztiak kontutan hartu dute, logikoak dira eta dokumentatuak daude. Hilabeteen zehar aldatuz joan dira hartu behar izan diren	Gastu ezberdinak kontutan hartu dute, nahiko logikoak dirudite. Aldatzen joan dira baiona ez daude ez ondo	Gastu ezberdinak jarri dira baina ez dauka logika gehiegirik, nahiz eta dokumentatuak egon.	Gastu ezberdin gutxi eta justifikatu gabeak eta berdinak hilabetez hilabete.

	erabakiengatik. Amortizazioa adostu bezala jarria.	dokumentatuak ezta ondo arrazoituak ere. Amortizazioa adostu bezala jarria	Amortizaziorik ez dute kontuan hartu.	<b>AHOLKUAK:</b>
4.4. Ustiapen emaitza	Azaldutakoekin, hartutako erabakiekin, egindako planifikazioarekin eta deskribatutako merkatuarekin bat egiten du. Ondo kalkulatu dago baita metatua ere.	Ondo kalkulatu eta metatua dago baina kontraesanen bat baino gehiago dago.	Ez du bat egiten aurkeztutakoarekin. Kalkulu akatsak eta bestelakoak ere.	Ez buru ez hankarik. <b>AHOLKUAK:</b>
4.5. Finantza emaitza	Ondo arrazoitua, dokumentatua eta logikoa.	Dokumentatua bai baina ez ondo arrazoitua.	Ez dago gaizki baina arrazoitu edo dokumentatu beharra du.	Gaizki. <b>AHOLKUAK:</b>
4.6. Ekitaldiko Emaita.		Ondo kalkulatu eta metatua		Txarto kalkulatu edo metatua. <b>AHOLKUAK:</b>
5. Bestelakorik: (1 p)				
5.1.	Aipagarria iruditu zaizuna	Aipagarria iruditu zaizuna	Aipagarria iruditu zaizuna	Aipagarria iruditu zaizuna

Ibarloza, A. (2012). Enpresa komertzialaren simulazioa – IKD baliabideak 3 -<http://cvb.ehu.es/ikd-baliabideak/ik/ibarloza-03-2012-ik.pdf>



**Aitortu - Ez merkataritzarako -Partekatu baimen beraren arabera (by-nc-sa):**Ezin duzu lan hau merkataritza xedetarako erabili. Lan hau aldatzen baldin baduzu, edo lan eratorri bat sortzen baduzu, sortutako lana banatu dezakezu soil-soilik baimen honen berdi-berdineko baten mende.